

Gazteak tokiko gastronomiara hurbiltzeko eta familian kalitatezko denbora igarotzea sustatzeko helburuarekin

Hemen dugu berriz ere Sukaldean Sortzaile lehiaketa gastronomikoa, gastronomiaren bidez gazteak eta adinekoak biltzen dituen ekimena

- Ausolan Fundazioak, Ausolanek eta BCC Culinary Clubek antolatutako ekimenaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 12 eta 17 urte bitarteko ikasleek proposamen osasungarri eta berritzaileak gauzatzea, gure kulturaren gastronomian eta beren aitona-amonen errezeta tradizioarekin oinarrituta.
- 2021eko edizioan, 200etik gora haurrek parte hartu zuten, eta 70 bideo egin zituzten, bakoitzak bere errezetarekin.
- Parte hartzeko epea gaur, urriak 5, hasiko da, eta azaroaren 11ra arte egongo da irekita. Irabazlearen saria izango da berak eta bere gelakideek BCC Culinary Clubeko tailer gastronomiko batean parte hartzea.



SUKALDEAN SORTZAILE

JÓVENES CREADORES
ENTRE FOGONES

Bilbon, 2022ko urriaren 5ean.- Ausolan Fundazioak (Ausolan Taldearen irabazi-asmorik gabeko erakundea) eta **BCC Culinary Clubek** (Basque Culinary Centerren gastronomia zaleei zuzendutako alorra, zeinetatik kultura gastronomikoa bultzatzen eta sustatzen baita gizartean), **Sukaldean Sortzaile ekimenaren IV. edizioa** antolatu dute

Ausolan Fundazioaren Gozatu Osasuna izeneko proiektuaren barneko ekimen honek aurreko edizioan izandako arrakasta ikusita (210 haurrek parte hartu zuten eta 70 bideo errezeta egin zituzten), aurten ere familietan bizimodu osasungarria izateko ohitura zein inguruneetan heztea sustatu nahi da, *“gastronomiak gure kulturaren duen garrantzia gogoratu eta gazteak beren aitona-amonen plater klasikoetan oinarritutako errezeta osasungarriak egitera gonbidatuz”*, adierazi du **Ausolan Fundazioak**.

Sukaldean Sortzaile proiektua ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailatik hasi eta Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei zuzenduta dago. **Ausolaneko** Hezkuntza Proiektuaren barruan, ekimen honen

helburua da "ohitura osasungarriak sustatzea eta gure adinekoekin denbora gehiago igarotzea, ezagutzaren eta jardunbide egokien iturri naturala baitira", adierazi du **Ausolanek Euskal Herrian** duen Hezkuntza Proiektuko taldeak. Proiektuak, haurtzarotik hasita, bizimodu osasungarria izateko ardurak irakasten die ikasleei, pertsona afektiboak, errespetuzkoak eta solidarioak izateko hezten laguntzen die, bai eta behar sozial eta kulturaleri erantzuten ere.

BCC Culinary Clubek nabarmendu duenez, "Sukaldean Sortzaile proiektuak balioan jartzen du aitona-amonen ohitura gastronomikoen ezagutza bilobei transmititzea, eta erronka bihurtzen da proposamen gastronomiko eguneratu bat sortzeko beren sormen gutzia aplikatu behar duten gazteentzat".

Lehiaketaren epeak eta finalisten hautaketa

Lehiaketan parte hartzeko epea gaur hasiko da eta azaroaren 11ra arte egongo da zabalik, Sukaldean Sortzaile webgunearen bidez. "Ikastetxeek aukera izango dute beren taldeak sortzeko – gutxienez adin bereko hiru kidekoak– aitona-amonen errezeta bat sortu eta berridazteko eta bideo bat grabatzeko, honako hauek azalduz: errezetaren jatorria, zergatik hautatu duten, zer urrats egin dituzten eta zer tresna erabili dituzten. Gainera, platera erabat bukatuta aurkeztu beharko dute", zehaztu du **Ausolanek**.

Izena emateko epea amaitzen denean, Youtuben publikoak "atsegin dut" gehien emandako bideoen lehen aukeraketa egingo da.

Bigarren fasea ikastetxeetan izango da, eta gehien gustatu zaien eskualdeko bideoa bozkatuko dute. Geroago, BCC Culinary Clubeko eta Ausolaneko adituen batzorde batek aukeratuko ditu finalistak, probintziaren arabera. Eta, azkenik, finalistak abenduaren 16an Basque Culinary Centerren egingo den lehiaketaren azken galara joango dira, eta han izendatuko dira talde irabazleak.

Ekimen honen bidez, **Ausolan Fundazioak** Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzen lagundu nahi du, zehazki, Osasunari eta Ongizateari buruzko helburua. "Gure xedea da, hain zuzen, txiki-txikitatik erakustea zer-nolako garrantzia duen menu askotarikoak eta orekatuak diseinatzeak, tokiko osagai eta produktuen aukeraketa eginda, nola platerak hala lan egiteko modua ingurumenarekiko iraunkorrak izan daitezen", zehaztu du **Fundazioak**.

Ausolan, Ausolan Fundazioa eta BCC Culinary Club 2019an hasi ziren elkarlanean. Harrezkero, hainbat proiektu garatu dituzte, kolektiboentzako sukaldaritzaren sektoreari zuzendutako kalitatezko sukaldaritza proposamen berriak, osasungarriak, seguruak, iraunkorrak eta zapoetsuak gauzatzeko.

Ausolan Fundazioari buruzkoak

Ausolan Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 2021ean kolektiboek sukaldaritza zerbitzua eskaintzea helburu duen Ausolan enpresak sortua, kolektibo zaurgarrienek elikadura osasungarria, behar adina eta iraunkorra izan dezaten. Fundazioak, gainera, bizimodu osasungarriko ohitura eta inguruneetan hezteko sustatu nahi du familietan, baita emakumearen gaikuntza tekniko eta profesionala errazte ere, enplegu duina lor dezan.

Ausolan Taldeak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza bere irabazien %10 helburu sozialetara bideratzen eta, Ausolan Fundazioaren bitartez, garapen iraunkorra eta gizarte ongizatea bultzatzera bideratuko du bere estrategia osoa.

Basque Culinary Centerri buruzkoak

Basque Culinary Centerrek ekosistema bakarra osatzen du, eta, bertan, prestakuntza, berrikuntza, ikerketa eta ekintzaitza uztartzen dira, gastronomia garatzeko eta bultzatzeko, gastronomiatzat ulertuta jaten dugunari eta jaten dugun moduari buruzko ezagutza arrazoitua. Erakunde aitzindari hau 2011tik Donostian dago kokatuta, eta Gastronomia Zientzien Fakultateak eta BCC Innovation izeneko Gastronomiako Zentro Teknologikoak osatzen dute. 2021ean Basque Culinary Centerrek 10. urteurrena ospatu zuen. Hasiera-hasieratik, erakundeak hainbat ekimen eta proiekturen bidez garatu du Gastronomiari buruzko bere 360º-ko ikuspegia. Aurten, erakundearen balioetan oinarritutako lorpenak eta etorkizuneko erronkak ospatuko ditu: pasioa, bikaintasuna, berrikuntza eta konpromiso soziala.

Ausolan Taldeari buruz

Kapitala %100 estatukoa daukan enpresa taldea da **Ausolan**, kolektiboentzako sukaldaritzaren sektorean liderra eta MONDRAGON Korporazioko kidea. Berrogeita hamar urtetik gorako historia egin du, besteak beste, enpresa, ikastetxe, ospitale eta egoitzetarako otorduak prestatzen eta banatzen; baita zerbitzu profesionalak eskaintzen ere, garbitasunaren zein ekitaldiak antolatzearen esparruan.

Ausolanen balioa bere proiektu sozioenpresarialean datza. Balio kooperatiboetan oinarrituta, Ausolanek bere proiektua osatzen dutenen garapena eta parte hartzea sustatzen ditu, ilusioa eta konpromisoa piztuz.

Lantaldea 13.000 langile inguruk osatzen dute, egunero 260.000 menu baino gehiago zerbitzatzen ditu 2.100 bezero baino gehiagoren artean, eta 2019an 256 milioi euro inguruko fakturazio bolumena lortu zuen.

Informazio gehiago

Komunikazio Agentzia

Belen Sasiambarrena

bsc@lasker.es | 650 590 562

